



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko apirilaren 9a


<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

### Ignacy Karpowicz

(Białysto, Polonia, 1976)

Idazlea eta itzultzailea. 2006an idatzi zuen bere lehen eleberria, *Niehalo*, eta, harrezkeroztik, beste sei idatzi ditu. Haren lanak finalista izendatu dituzte hainbat sariketatan (besteak beste Poloniako Nike sariketean), eta, 2010ean, *Polityka* aldizkariaren *Paszport* sari entzutetsua jaso zuen, *Balladyny i romanse* lanarekin. Poloniako prosa garaikidearen ahotsik ausart eta berezietako bat da gaur egun.

### Sońka



Sońka Poloniako ekialdeko herri batean bizi da. Bilorusiako mugatik hurbil, bakarrik, ahazturik, bazterturik, oroitzapenetan galdurik. Egun batean, ustekabeko bisita bat jasoko du, eta horrek iraganera begira jarriko du. Bisitariak, hiriburutik etorritako antzerkigile moderno batek, gure garaira ekarriko du Sonkaren garaiko gerraren kontakizuna. Zeren eta gerra latz baten kontakizuna baita istorio hau, basakeriaz eta oinaze lazgarriz betea, baina maitasunaz ere badihardu aldi berean, maitasun debekatuaz, desiraz eta pasioaz.

## Ignacy Karpowicz idazlearen idazlanak euskaraz

Sońka (2005) **N KAR**

**Amaia Apalauza Olo** (Iruñea, 1979) eta **Sonia Kolaczek** (Warmia, Polonia, 1987) izan dira liburuaren itzultzaileak. **Amaia** Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian doktorea da, eta itzultzaile-zuzentzaile lanbidez. 2016an euskaltzain urgazle izendatu zuten. **Sonia** Espainiar Filologian lizentziatua da eta Olga Tokarczuken *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* eleberria euskaratu zuen Amaiarekin batera.

## Kritikak esandakoak

“... Bi pertsonaia batzen ditu istorio honek: Sonia eta Igor. Emakume edadetua bata, Krolowe Stojlo herrixkako biztanle bakarra, gaztetan gehiegi sentitu eta bizitakoa, eta bere historia urte luzez isilpean gordeta, helduaroa behi, katu eta txakur banarekin partekatzen duena. Igor, aldiz, auto garesti batek bide ertzean utzi duen (ustezko) hirikume arranditsua da, antzerki zuzendaria eta idazlea, ego handiegikoa. Sorkuntza-krisi betean egin du topo emakume bitxiarekin, non eta Poloniaren eta Bielorrusiaren arteko muga lausoan, mapetan ageri ez den herri galdu batean, hizkuntza-zapalkuntza agerikoa den eremuan. Espero gabeko bisitaren harira, Soniak ulertzen du heldu dela bere unea; heriotzaren aingerua etorri zaio etxera, eta, azkenik, konta dezake bere bizitzaren historia. Igorrek, bien bitartean, antzerki obra bat dakusa Soniaren hitzetan, eta, hala, ohar mentalak hartzen ditu eszenografia irudikatzen zein antzezlearen posizio eta keinuak zehazteko.

Geruza ugariko eleberria proposatzen du Karpowiczek; egitura konplexua duen lana da Sonka. Izan ere, denboran jauzi egiten du, eta oroitzapenak, gertakizunak eta errealitatearen fikzionatzea txirikordatzen dira, unean-unean zein den zein argi zehaztu gabe. Nobelan aurrera egin ahala, irakurleak zalantza egiten du, ezin baitezake bereiz nork kontatzen duen muineko istorioa: kanpo narratzaile batek, Soniak, Igorrek, Ignacyk? Antzerki obra al da irakurtzen ari dena, Soniaren esperientzian oinarritutako narrazio lan bat, edo haren testigantza zuzena? Hala ere, badirudi galdera beste bat dela: axola al du, finean?

Esperientziak artearen bidez adierazteko gaitasunaz eta aukerez hausnartzen du Karpowiczek, basakeriaz eta desohoreaz bezainbeste isiltasunaz, epaiatz. Hori hala, asmo moralizatzailerik gabe mintzatzen da gerrari buruz, eta, bide batez, azaleratzen ditu tragediaren erdian maitasunak har ditzakeen formak eta hurbilekoen heriotza desiratzerainoko minak, baita emakume arraildu baten biziraute estrategiak ere. Ertz ugariko pertsonaia eraikitzen ditu, errealitate gordina bezain sinesgaitza den istorioa kontatu ahal izateko..”

Irati Majuelo / Berria, 2024-01-21

## Erabilitako iturriak

Rayo verde  
<https://www.rayoverde.es/autor/igna/>

Kritiken hemeroteka  
<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8888>

Wikipedia  
[https://eu.wikipedia.org/wiki/Amaia\\_Apalauza](https://eu.wikipedia.org/wiki/Amaia_Apalauza)